

Elgetako aldizkaria urria 71zk.

Agurtzane Iribar (Eroskirako)
San Roke 36-1

**Urriaren
19xan
eraldatuta**



Goienkaria

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxe: 94 6583061.

Asentzio eguna aurrera

Kaixo irakurle denoi!

Eskutitz honen bitartez, Elgetako Gaztetxia aurrera eramaten duen batzararak, asko pentsatu eta gero hartu duen erabaki bat azaltzea nahi dizuegu.

Duela sei urte, Elgetako Gazte Asanbladak herrian tradiziozkoa den eta une hartan galduta zegoen egun bat, Asentzio eguna hain zuzen ere, berrezkurtzea erabaki zuen. Herriko Gazte Asanbladak egun honek herriko kulturaren eta historian duen garrantzia ikusita hartu zuen Asentzio egunaren balioa herritarren artean zabaltzeko helburua. Sei urte hauetan egun hau ahalik eta ondoen antolatzen saiatu gara eta orain dagoeneko gure helburua bete dela iruditzen zaigu. Batzarrean gauden guztiok ikusten dugu egun hau berriz ezin dela galdu, baina denok ulertzea nahi dugun gauza bat gertatzen da. Egundak antolatzeak beste ekintza batzuk burutzerakotzeko mugatzen gaitu. Asentzio eguna baino lehen batzar asko erabiltzen ditugun egun honen inguruan egin beharrekoak pentsatu, lotu eta burutzeko Gaztetxearek dagozkion beste ekintza batzuetan pentsatzeko denborarik utzi gabe. Hau dela eta bilera ireki bat burutu nahi dugu Asentzio eguna antolatzearan ardura hartzea nahiko luketen elkarte nahiz herritarrekin. Elgetako Gaztetxiaren

partetik laguntasun osoa emateko prest gaude, baita egunean bertan lan egiteko ere, baina antolakuntzaren beste norbait arduratzen bada, denbora horretan guri Gaztetxe bati dagozkiola iruditzen zaizkigun ekintzetan murgilduko gara.

Bilera burutuko den egun eta orduaren berri kalean kartel bidez eta Goinkariaren bitartez emango dizuegu. Interesa eduki arren azaldu ezin zaretenok batzarrean jakinarazi zuen interesa.

Amaitzeko ohartxo bat luzatu nahi dizuegu, ardura hau hartzeko inor ez bada prest azaltzen guk jarraituko dugu tradizioa eustearen betebeharrarekin.

Elgetako Gaztetxia

Egunen baten zeozer pasauko da

Adiskide batek istripua izan berri du. Hau gertatuta, asko izan dira egin ditudan gogoeak.

Horietako bat, eguneroko bizilekua dugun herrigunea auto istripuen aurrean zaintzea izan da.

Behin baino gehiagotan eta batek baino gehiagok esan izango zuen: "egunen baten zeozer pasauko da!". Baina inora heldu gabe.

Zoritxarrez, herriguneko errepideetatik igarotzen diren autoak abiada lasterrean egingen dute eta kalean dabilen

edonor arriskuan dago, haurrak, edadetuak, zailtasun fisikodunak...orohar, denok.

Lerro hauen bitartez, nahikoa dela esatea nahi nuke eta neurriak lehenbailehen hartu behar direla berandu izan aurretik. Inguruko herrietan neurriak hartu dituzte, beraz, ardura duenak aukera ditzala herrirako egoiak diren neurriak.

Ni bien bitartean, herrigunean neurriak ipintzeko behar adinako lana egiteko prest nago, gure seme-alaben zein edadetuak bizitzak arriskuan egoteko eskubiderik ez dagoelako. Gure herriko kaleak seguruagoak izan daitezten lan egin dezakegu!

Josu De Vega

Eskerririk asko, danoi

Hau gutuau, sagardo eguna aurrera eruaten lagundu doskuen danoi eskerrak emoteko da. Gaztetxiak ezingo zeban hau jaixau aurrera eruan, herritar pilla batek eskaini dotsan laguntza barik.

Eskerririk asko, tortilla lehaketan parte hartu zebe talde danei, honek barik ezingo zalako aurrera eruan eguneko ekintza garrantzitsuena. Baita, tortilla danak probau eta balorau zebe epailliei. Eskertzekua da, dendak edo jendiak egin daban lana errifak saltzerakuan, baita erosterakuan be.

Esker berezi bat, Haizea eta

Patxi tabernei, kalian kupe-lak ipinita girotzen saiatzearen eta baita Panaderokua, Ostatu eta Eguzkitza Sagardotegixai be eskerrak, eskatutako materiala laga-tziagaittik.

Eskerririk asko benetan, gaztetxe-ko ekintzetan lagundu doskuen jende guztiari eta parte hartzen edo ikusle moduan egon diran denei.

Urtero moduan, adin, pentsakera eta iritzi desberdinetako jendia batu gara plazan, gure helburuetako bat lortuz.

Besterik barik, aurrerantziaren antolatutako ditugun ekintzetan parte hartzera gonbidatzen zaiztegu.

Elgetako Gaztetxia

*Hurrengo
Goibekokale
urriaren 19an
izango duzu
buzoian.
Ordura arte
onak izan eta
ondo bizi.*

Erredakzio kontseilua

**ESTAMPACIONES
INTXORTA S.A.**



AENOR

ER

Empresa Registrada

ER-07142/96

Betsaide poligonoa 2-B. lur saila. Pabiloi zk.: B9- B12. Posta Kutxa 106 48230 Elorriko

Tel.: 94 6231914 Faxes: 94 6231928

Ondo eginak ez du lotsarik

Zenbat urte dira Goibekokale hasi zela? Sei? Zazpi? Arin pasa dira gero! Harrezkero, hamaikatxo gertaera bizi izan dugu, hainbat pena sufritu... Amodioak eta desamodioak puztuta eta kikilduta ere ibiliko ginen...

Gauzak aldatzen doazen seinale. Eta ondo bidean, aurrera egin behar!

Proiektuek ere, argia ikusten dutenean, aurrera egin behar dute. Etenen badira, gelditzen, galarazten... kate-begi bat hausten zaigu. Bidezkoa da hasitakoa amaitzea. Baina hasitakoari, martxan jarri aurreko lana aitortu behar zaio, errespetua erakutsi. Lanerako gogoia duenari utzi egiten.

Proiektuek aurrera egiten badute, hurrengo mailara iritsiko dira. Lana ondo egindakoaren pozaz, etorkizunean jarriko ditugu begiak, eta mailaz maila, etengabe egingo du bidea proiektuak, gure bizitzak, auzoak, herriak, eskualdeak... Geu kateaturik goazelarik samurragoa da aurrekoen lana ulertzea eta, inplikaturik gauden heinean, gauzak hobetze aldera jokatuko dugu, ez eteteko, gelditzeko edo galarazteko.

Ez daigun eten Goibekokalek abiatutako bidea, ez zapuztu gazteon ilusioa, ez eten etorkizunerako kate-begia.

Beatriz Zabalondo

Udazkeneko Haizeaz

Udazken honek, zuhaitzetako hostoak eramango dizkigu, eta udazkeneko haize honek beste orri batzuk kenduko dizkigu, Goibekokale 2001.ko hego haizearekin batera, badoa. Elgetarron eta Angiozartarren artean lekua merezimenduz irabazia duen aldizkariak agur esango digu. Proiektu handia zena, haundiago baten barruan gehituko da, agian ez da hain gurea izango, baina hoherako izango denaren esperantza daukagu. Globalizazioaz ari garen garai honetan, txiki-nari txoko txikiena tokatzen zaio beti ere; proiektu berria benetako aukera izan dadila txikiontzat, agian gehiago bururatu beharko dugu orain.

Agur honetan ezin ahaztu hor izan den jende guztia ezta? Erredakziotik hasi (zenbat ordu eta zenbat buru-hauste!!!), kolaboratzaileak, herriko denda, taberna eta enpresak eta azken batean sinistu duten guztiak, Goibekokaleren irakurleak.

Iker eta Ana

Heldu damugara

Orain dela urte batzuk elgetar gazte talde batek martxan jarritako proiektua heldu da mugara.

Ez zuen hasiera erreza izan hilabete-kari honek, zenbaitzuk, ez baitzuten uste, herrian, izan duen arrakasta izango zuenik. Dena dela, gazteen ilusioa ez zen itzali eta honelako proiektu bat aurrera ateratzeko gaitasuna erakutsi zuten.

Besteok berriz, benetan eskertu dugu haiek eginiko lana, sarritan asteburuetakoa gaueko orduak kentzen zizkiena (sagrifizio handia gazte batentzat).

Beraz, nere partetik, eskerrak eman aldizkari hau aurrera ateratzen lagundu duzuen guztioi, gazte eta heldu, eta eskerrak baita, noizbehinka, kolaboratzaile gisa, nire iritzia kaleratzeko aukera emateagatik.

Bestalde, badira gaur egun ere gure herrian proiektu berriak eta lanerako prest dagoen gazteria. Proiektuek hasiera, beti bezela, oztopoz betea izaten dute, baina espero dezagun hauek gaintzeko gai izatea eta sortutako proiektu berriak, noizbait, elgetako herritarren gozamenerako izatea.

Iban Retolaza

Agurrak eta zorionak

Hainbat urtetan hilero etxean jaso izan dugun Goibekokale aldizkariari, nolabait agur esan eta eskerrak eman behar dizkiegu izkutuan hau aurrera ateratzen lagundu duten pertsona guztiei.

Aldizkari honek, zenbait informazio, albiste, iritzi... jaso eta herritarro eskuetara ekarri dizkugu, herriko jende gazte eta ez horren gazte direnei ateak irekiz. Bakoi-tzak bere iritzi, ideia eta azalpenak emateko aukera eskainiz. Batek baino gehiagok bere idazle txiki izatearen zale-tasun hori agitarra emanez.

Nola ez, hau guztia errealitate bihurtu dutenei animoak eman eta guztiz amaiera ez denez lanerako indar eta laguntza baduzuela gogorazi nahi dizuet.

Amateria guztiek, sinesgarria dirudienez jarraipen bat ere badakartzate berdina, antzekoa edo desberdina izan arren.

Iratxe Uzuriaga



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaran laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea



Gipuzkoako foru aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Goibeko K. E. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe, Bittor Gallastegi eta Igor Arizmendiarieta.

Erredaktoreak: Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren, Oihana Sarasua eta Esti Askasibar. (Tel: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Eztenaga, Ikastola. Tirada: 700 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

E-mail: goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Noizko?

Bada denboratxo bat GOIT-Bek bere biderei ekin ziola, baina oraindik herri honetan, Elgetan, bailarako komunikabide hau jarraitzeko ez dugu aukerarik eta badirudi luzaroan ez dugula izango ere, hori dirudi behintzat. Herritarrok, batzuk behintzat, egoera honekin ez gaude batere ados eta jakin gura genuke zein den horren arrazoia, ez baldin badago behintzat azaldu ezin den arrazoi izkurturik; komentario asko baitira hor zehar entzuten direnak.

Garbi dagoen gauza bakarra Elgetan GOITB ez dugula ikusten da eta nahi izanez gero borondate piska batekin arazoei (arazorik egotekotan) irtenbidea bilatzen zaiela.

Rebeka Ubera



Dana globalizatzen doia

Ez bakarrik munduko ekonomia eta gerrak. Gure inguruan be gero eta neke-saua egitten da Elgeta, Zumarra edo Otxandixoko gaztiak bereiztia, gero eta antzerago egitten dabe berba.

Oin herritako jaixetan, tabernetan musika bardina entzuten da Antzuolan, Bilbon edo Logroñon.

Herri aldizkarixak be aldizkari globalau baten urtengo dabe. Gaurko Trenak ez dira herrixak batzeko, Europara hurbiltzeko baino. KAPITALAK ezarritako pentsamendu bakarran alde gizartian edatzia.????? Egoera honi buelta emoteko, bakoitza bere kabuz pentsatzen hasi biharko da, hartzen dittugun informazinuekin kritiko izan eta argi eduki gure nortasuna gizaki eta herri moduan.

Orduan konturatuko gara, gure hizkuntza eta lurra defenditzia dala benetako etorkizuna eta merezi dabela mundu desberdintsuago eta justuago baten alde borrokatzia. Gure kabuz pentsatzen hasten garenian izango gara aske pertsona eta herri moduan.

Sebastian Arantzabal



Zorion-ez

Aspalditxoan nere inguruko hainbat emakume ama izan edo izango dira. Zer ote da ama izatearen esperientzian murgiltzea? Hilabete luzez zure barnean gizaki berri bat ernetzen sentitzea.

Nik neuk eta gizon orok, ezin diogu erantzunik eman galdera horri, momentuz behintzat. Gainera aurrekoa gutxi ez balitz jada sormen horretan ez gara ezinbestekoak. Gaur egun hazirik gabe ere sortzen baita fruitua.

Tartean badira emakume asko nahi eta ezinean; ahal duten batzuk berriz, datorren bizi berri horri bidea mozten diote (naturak ogia ematen dio haginik ez duenari): Haurrik eduki edo edukitzen zaudeteno zorionak eta naturak bere kapritxoekin ezinean utzi gaituenoi besarkada bat. Ia ama izatearen zorion ezean gaudeno gura izateko aukera ematen digun behintzat.

Xabat Leanizbarrutia

Agur Jose Luis

Urte batzuk gure artean bizi izan da eliza katolikoaren arduradun bezela. Bere lana herritarren gustokoa izan dela esan behar egin dioten agurra ikusita, hala ere, alde egin duen honetan galdera ausart batzuk egin nahi ditut.

Eta berririk ez baletor zer? Ez gara gauza izango, komunitate sozial bat garenez, gure arteko harremanak zuzen xamar eramateko? Elkar errespetatea, larri dabilenari laguntzea, gaixoei begirunea, ez gara gauza izango, lider erlijioso berri bat ekarri gabe gizakien baloreak bermatzeko?

Seguru nago baietz, pertsonak garelako gaitasun soziala badaukagula. Baina susmoa daukat falta zaiguna, behar adinako ausardia dela pauso hori emateko. Bai ala ez?

Joseba Elkoro



Mila esker

Boluntariotza: azken urtetako Euskal herriko gizarteak bereiztu duen elementua eta kirolean, kulturean, ekologian, euskaragintzan, etab. sekulako lorpenak izan dituenak.

Ez dut uste XXI. mendeko gaitza izango denik, baina gero eta boluntario gutxiago dugu. Gauza ederra da boluntarioa izatea; lagunak egin, gauza pila bat ikasi, gizartea edo herria zertxobait aldatu... Baina antza denez gaur egun ez du errakargarritasunik.

Zorionez Elgetan boluntariotzak eman ditu bere fruituak, hauetako bat ale honekin agur esaten digun hilabetekariak GOIBEKOKALE, ez dut uste baloratzen dugunik talde honek egin izan duen lana. Gauza handia eta zaila da aldizkaria kaleratzea, eta hemen izan ditugu, hilabetero herriaren berri ematen. Eskerrik asko.

Hemendik aurrera, egitura profesional batean oinarritzen den astekaria izango dugu, eta poztekoa da. Baina mesedez, ez dezagun galdu boluntarioaren ikuspuntua eta lana, premiazkoa da, ez litzateke batere ona izango Elgetarako.

Iñaki Ugarteburu



6 urte 6

Goibekokaletik: -Sei urte hauetan kolaboratu duzuen guztioi testu txiki bat idazteko eskatzen dizuegu. Nahi baduzu..." komentatu zidan Oxelek.

Eta nola erantzun ezetz! Noski, noizko? - galdetu nion solaskideari.

- Barikurako- erantzun zidan. Nik, saiatuko nintzela esan nion. Agurtu eta gero, telefonoa eskegitzean idazteari ekin nion: Badira 3 urte Bizkaia aldera bizitzera etorri nintzela, baina astero eta hilero bai Goibekokale eta bai Goienkaria gordetzen dizkidate etxean irakurri ahal izateko. Herrian sortzen diren proiektuak edo gertakizunak, horien guztien jakinaren gainean egoteko balio dizkidate. Euskaldun berria izanik, Euskalkia ikasteko baliatzen naiz aldizkariak, hitz batzuk nola esaten diren, hizkuntza jatortzeko.

Bi hitz besterik ez agurtzeko. Zorionak Goibekokale hain aldizkari ona izateagaitik egiten duzuen guztioi. Horrela jarraitu dezazuela urte askoan hasiera besterik ez da-eta...

Maite Peñalver Castillo



Zorionak bihotzez

Sei urte igaro ondoren Goibekokale-ko lehiatila itxi egiten da eta Goienkaria aldizkarian azalduko dira orain arte bezala herriko berri eta gertaerak. Lerro hauen bitartez

gure esker ona eta txalo beroena herriko kultura bultzatzaile izan diren gazte talde jator honi, denok dakigu zeintzuk izan diren (baita banatzaileei ere). Beraiek lortu dute, agian besteok sekula ez duguna lortu, gutxienez hilean behin herria euskeraz irakurtzen ipintzea.

Badakigu lan gogorra izan dela eta ez beti pozgarria, baina uste dugu emaitzak benetan aberasgarriak jaso izan dituzuela.

Aurrerantzean zorte ona opa dizuegu eta atzetik datozen gazteei hildo beretik jarraitzera animatu, azken batean, dena Elgeta goraiatzeko eta kultura indartzeko izatea espero dugu. Berrito ere eskerrik asko eta zorionak bihotz bihotzetik.

Maria Elena Eztenaga

Aurrerapen larregi



Beste egunian, Goibekokale egiten dabonetako batek rebistaren azkenengo alerako gai librian zerbait idaztia nahi neban galdetu zoztan. Zertaz baiña? Aspaldixan bueltaka dabilten hau gaiak aukeratu dot, betiko agurren topikora jo barik.

Aurrerapenak, gauza danak moduan, bere neurrian onak diraz. Gehiegizkuak sarritan on baiño kalte gehixau egiten dau. Ejemplo moduan, abiadura handiko trenak, telefono mugikorren antenak,... eta astakeriak pentsatzen jata ze beste zenbait proiektu erraldoi gehiegizkuak dira. Sarritan horrek proiektuok aurrera etartzeko biharrezkuak diran azterketa ekologikuak egiten dira, behintzat hori esaten dabe, baina ez dotse bape jaramonik egiten, eurei komeni jakuena egiten dabe eta kitto. Holan jarraituta etorriko da gure Lurrak errebanxtia hartuko daben eguna, eta orduan alperrik izango da. Zelako etokizun naturistikua laga bihar dotseu gure ondorenguei?

Galdera hori Elgetar eta orokorrian irakurle guztixei nahiko neuke egittia; pentsau piskat. Horrek ez dau esan nahi aurrerapenak kontra nagonik, neu naiz lehenengua erabiltzen eta bultzatzen. Baina uste dot gehixau pentsau bihar dogula gure bizi kalitatiari nola eutsi. Abiadura handiko trenaren oingo proiektua egiten bada, oin bizitzeko paradisua dan Angiozar guztiz apurtuta geratuko da.

Tira pentsakera horrekin agurtzen dot oingo Goibekokale eta ongi etorria emoten dotsat proiektu barrixari. Pena haundixa emoten dosta herriko errebestia desagertziak, gure herri txikixan izakeria asko indartu dau eta. proiektu haundixek eta globalizazinuak ez al dittue gauza txiki guztiak irentsiko.

Amaia Askasibar



Alla va la despedida

Eta triki-trikixak esaten daben moduan: "despedida da tristia". Dana dala hain tristia be ez da fate hori ziharokua ez danian.

Eta despedidarako zer esan?

Hasteko eskerrikasko nere buruan dabilzanak papelian ifintzeko aukeria emon dostenei. Ni beti egoten naiz eta, desiatzen jarduteko. Eskerrik asko leitzeko pazientzia hartu dozunei be, espezial, ondo nahiz txarto dauela, zeozer esan dostazuenui.

Eta akabatzeke hasittako modu-moduan akabauko dot. Astian Donostian izan naiz "glamour" (zer dan ez dakixenak preguntau deixela EITBn) faltan zebiltzan eta nere presentziarekin glamour pixkat ifintzeko, eta "El café del Boulevard" izeneko establezimendu batian sartu nintzan. Zorionez euskeraz egiten dogunok erderaz be egiten dogu, horri esker jakin ahal izan neban komuna non zeguan, eta esan ahal izan notsan bertan lanian zebillenari zerbezia gura nebala. Beraz badakizue zuen erderia praktikau nahi badozue nora fan. Gaiñera establezimendu dotore-dotoria da eta, oso merkia ez bada be, bertan ibiltzen dan jentia oso dotoria da ("glamourrik" ez dakit daukan).

Jabier Arantzeta

Martitzenean dira sinatzeko kontratua

Azkenean polikiroldegiak ateak zabalduko dituela dirudi. Udaletik kontratua sinatu arte gaia bukatu ez dela esan diguten arren. "Jabe" berriek martitzenean kontratua sinatu aurretik zentzunez jokatzeari nahi dute, hizketalditxo bat izan dugu Goibekokalekook eurekin eta garbi geratu da interes handia daukatela Polikiroldegia hartzeko.

Jontxi, Antxon eta Asier dira, Polikiroldegia hartzeko prest dauden hiru gazte donostiarrak. Beste lagun bat ere gehituko zaie Elgetan aurrera eramanean nahi duten proiektuan. Guztiek dute esperientzia hostalaritza munduan. Jontxi Bolatokiko barraz

arduratuko da eta Antxon instalazioez eta bolatokiaz. Sukaldearen ardura Asierrek izango du, sukaldaritza ikasketak eginak ditu gazte honek eta Argiñanorenean ere aritu da lanean.

Lana egiten zuten jabetzeko ugazabaren senarrak, Elgetan jokatzen du palan, berak eman zien Polikiroldegia berri. Tabernari itxura aldaketa eman nahi diote "Alde batetik barra aldatzeko asmoa daukagu, pintxoak eta razioak emango ditugu eta. Asteazken menuarekin jarraituko dugu eta aste-bukaeran sukaldariak esperientzia duela aprobetxatuz menua eta karta berezia emateko asmoa daukagu". Donostiatik Elgetara gus-tora datoz "Donostian jen-



Jontxi, Antxon eta Asier dira, Polikiroldegia hartzeko prest agertu diren donostiarrak.

de gehienak zerbitzuetan lan egiteko aukera bakarrik du. Han lan egin edo herri txikian lan egin antzera da, aukeran nahiago dugu horrelako herrian lan egin". Kontratua sinatu arte itxaron nahi dute guztiz ziur egoteko. Kontratua sinatuz gero urriak 14an, datorren domekan, ireki-

ko dute taberna eta bertara gonbidatu nahi dituzte, herritarrek lunch bat gertatuko dute-eta.

Martitzenera arte itxaron beharko dugu, azken hilabeteetan makina bat langile, enpresa eta herritarren burukomina izan den gaia behingoz bukatu den jakiteko.

Elgetako garapen egokia zein den jakin guran

Elgetari buruzko diagnostikoa eskatuko du Udalak herriko alor guztiak kontuan hartuta: kultura, industria, etxebizitzak, kirolak... Diagnostikoaren ondorioetan, garapen egokia izateko Elgetak jarraitu beharreko bidea zein den zehaztuko da. Enpresa batekin harremanetan jar-

tzekoa da Udala diagnostikoa egin dezan. Komisio bat ere sortuko da diagnostikoaren jarraipena egin eta herritarrek iritzia azaltzeko aukera izateko.

Ekainak 30erako egingo da, Eusko Jaurlaritzak Agenda Lokal 21-ren bidez ematen dituen diru laguntzak jasotzeko. Diag-

nostikoa egiteko laguntza 400.000 pta.koa da, gaitzetzeko Udalaren kontu.

Diagnostiko hau egiteko beste arrazoi bat, Udaletxeak herriko arau subsidiarioak aldatzeko asmoa duela da. Urbanismo batzordean onartu da arauak aldatzea eta dato-

rren osoko bilkuran proposamen hau onartzea bakarrik geratzen da. Arauak egiteko, beste diagnostiko bat egin beharrean, diagnostiko honek emango dituen emaitzak, ehuneko handi batean behintzat, kontuan hartuko dira arau subsidiarioak egiteko orduan.



IRAMA
ELEKTRIZITATEA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
tel. mugikorra: 619692336
tel: 789057-768025



Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

Giro paregabea Sagardo egunean

Jende ugari batu zen plazan eguneko ekintza garrantzitsuena ikusteko: Tortilla Lehiaketa

Aurten ere, Gaztetxeak antolatutako Sagardo Egunaekin eman diogu agurra udari. Eguraldia lagun zela, Irailaren 15ean ospatu genuen eta urtero bezala arratsaldean patatazko tortilla lehiaketa izan zen plazan. 21 taldek hartu zuten parte. Arratsaldeko 18:00etan hasi eta 19:00tarako prest zeuden tortilla guztiak mahai gainean. Epaileak Iñaki Ugarteburu, Iñaki Urgoitia eta Mari Mar izan ziren eta tortilla guztiak dastatu ondoren, Arantxa eta Juan Marirena izan zen onena. Plazara gerturatu zirenak sagardoa nahi beste edateko aukera zuten eta baita tabernetan ere. Azkenerako sagardo guztia edan zen. Patata tortilla lehiaketaren ondoren bertsolariak kantatu zuten plazan. Iluntzean, afari herrikoia egin zen eta 70 lagun inguru izan ziren afaltzen. Giro polita bai afarian eta baita bertso saioan.

Gauerdian Gaztetxera hurbildu zirenak, Ska jaialdiarekin jaiari bukaera eman zioten. Papparazzi (Katalunia) eta Akats (Bizkaia) taldeak goizalderarte aritu ziren.

Eguzkitza sagardotegian 2 lagunentzako afariaren errifa, Josu Arantzabali tokatu zaio.

TORTILLA LEHIAKETA

1	Arantxa - Juan Mari	50
2	Gu Gaz Gu	45
3	Pataterak	44
4	Elgoibarko Gaztetxea	43
5	Elgetako Gaztetxia	40
6	Txapela	38
7	Batasuna	38
8	Oihana eta Iratxe	37
9	Intxorta	37
10	Maya	37
11	Futbolarixak	37
12	Gure Borda	36
13	Estampaciones Intxorta	35
14	Txirrindulari Elkartea	35
15	Tabasko	35
16	Geldiezinak	34
17	www.tortilla.com	33
18	EAJ	32
19	Kontxi Arrandegia	29
20	Elizaran	27
21	Eingo Deu	23

oh.: Puntu berdinak dituztenen kasuetan, itxura izan da desenpatea egin duena.

Izaskun Larrea arduratuko da errolda berritzeaz

Urriak 15ean hasiko da Udaletxea errolda berritzen. Lan hau egiteko lau pertsona aurkeztu ziren, proba batzuk eta gero Izaskun Larrea aukeratu dute lan hau aurrera eramateko. Etxe guztietara gutuna bidaliko da, bertan bizi direnen datuekin eta Udaletxean errolda berritzatzeko egongo den ordutegia aipatuz. Etxe eta lokalen errolda ere berritzatuko da aurten. Bi hila-beteko epean bi erroldak bukatuta egon beharko dira.

Ikastaroak hastear

Urriaren 8an hasiko da Eskulanean ikastaroa eta oraindik zabalik dago izena emateko epea. Hamar pertsonak eman dute izena eta gehiago izatea espero da. Ikastaroa ekainerarte luzatuko da eta astean 2 ordu izango dira talde bitan banaturik, 14:00tik - 16:00ra eta 20:00tik - 22:00ra.

Olio bilketaren jarraipena

Maya taldeak olio bilketa egiten jarrituko du datozen hilabetetan. Datak aldatu egingo dira ordea, datozen hilabetetan urriak 27an, azaroak 30ean eta abenduak 21ean izango da bilketa. Mayakoek esan digutenez, jende dexente dabil olio bilketan parte hartzen. Batez ere tabernariak egiten ari diren esfortzua aipatu dute.

Urriaren zehar perretxiko bilketa eta erakusketa egiteko asmoa daukate Mayakoek. Eguna oraindik zehazteke dago. Kanean jarriko dituzte kartelak.

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078



Produkturik onenak,
prezio onenean

Tel:
76 80 98.

ALDI

Zein iritziz dakazu haur-tzaindegi proiektuan gainian?



Aiantxa Berroaondo
(37 urte) Etxekoandria

Neretako oso ondo dago, umiak esku onian geratzen dira-eta, neure semiak be horrelako leku batian egondakuak dira eta asko ikasi dabe.... jaten, jolasten... Ondo konpontzen ziran bertan, laguntasun asko emoten dabe holako lekuek.

Nik proiektua ondo ikusten dot, baina ez dakit jendiak zelan erantzungo luken. Elgetan ez dakit jendia prest egongo zan horretako.

Jiziar Olabe(43 urte)Etxekoandria



Valentín Elortza(48 urte)
Bihargiña

Neretako biharrezkua da, ume dexente juango zalako bertara, umiak zaintzeko leku aprosa dala pentsatzen dot.




Tere Beteta(32 urte)
Bihargiña

Gaur egun gero eta emakume gehixago dago lanian eta neretako biharrezkua ikusten dot umiendako leku bat eukitzia. Oso zailla da gaur egun umiak zaintzeko emakume bat lortzia eta haur-tzaindegi hori egitten bada seguru nago arazo asko konponduko dittuala.

Alde batetik ondo dago, baiña horrek batzutan komodidadia ekarri leike aitta-amendako, umietatik libra-tzeko bide bat izan leike-eta.

Jabier Ervasti(33 urte)
Bihargiña



Oso interesantia izango litzake herrixandako. Guraso asko lanian dabiz eta hori batzundako aproposa izan leikela pentsatzen dot.

Unaki Elizagirre(41 urte)
Bihargiña



INAKI JATETXEA

Leku paregabea.
eguneko menua
Tel: 943 76 82 83

OSTATU JATETXEA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

Kopeta bat

Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

Patxi Taberna

Aintzane denda

zugandik gertu behar duzun beste

Domingo Iturbe 4-behea Tel: 943 768297

Gorka Arizmendiarrjeta (langillia)

Ainara Iribar (ikaslia)

Bixak be 22na urte eta Goibekokaleko langillienetarikuak

Zelan hasi ziñeten bapatekuak egitten? Jentia falta zala ta... guri esan... eta bertan hasi giñan, eta gustora gaiñera.

Honezkero zenbat lagun pasauko ziran atal honetan? 65 bat persona.

Zer da zailagua argazkixa edo testua? Bixok nahixau dou argazkixa etaratzia.

Zein bapateko gustau jatzue gehixen? Hauxe beroi.

Eta bapateko zein galdera? "Elgetako parejaik polittena?"

Zenbat kobratzen dozue hau egi-ttiarren? Zuzenian ezebez, baiña beste modu batera pagatzen doskue.

Zeini ez zontzakie egingo bapatekua? Behiñ ezezkoa emon dozkun pertsona bati.

Holan... bapatian... zein mutil guapo eta zein neska guapai? Gorka eta Ainarai.

Hau lanau bapatian egi-ttekua izango zan ba? Bai, baiña denboria eruaten dau gauza guztien modura.

Zuzendarixak bronka asko bota dotsuez? Uuuuffffffff!! Ez dakizue ondo!

Askotan galdetu dozue zer falta dan Elgetan. Zer? Jentian kolaboraziñua.

Eta zer dago sobran? Juergarako gogua.

Penarik emoten dotsue Goibekokale eraldatziak? Bai, baiña azkenian irakurtzen dana inporta da. Eraldaketia ona izango da.

Zein izango litzake zure buruarendako galdera on bat? Egiñ dozuena nahikua izan da?

Kalian hotza txuputzen edo barruan ordengailuakin burrukan? Burrukan gutxitan egin dogu, baiña hotza pasau dogu, jentian eze-tzak asko izan dira-eta.

Goikokalia edo bekokalia? Galderak egi-tteko onena tartia da.

Karta normala edo e-maila? Polittena kartia baiña prixaka bazabiltz, e-maila.

Kubatak edo solomillo eder bat? Lehengo solomillua eta afarixa ondo amaitzeko kubata on bat.

Zein musika dozue gustoko? Bixok ondo helduta dantzan egitteko agarrau on bat.

Definidu berba baten Goibekokaleko bapateko egillia: Lotsa bariko gazte bi. Ja, ja, ja.



Aurrebenjaminen taldea osatzeka

Eskola kiroleko aurrebenjaminen moduan nesketan ere jendea behar da taldea osatzeko

Hilabete honetan murgilduko dira herriko haurrak Eskola kirola programaren barruan. Urtero bezala LH eta DBHko ikasleek jardungo dute hainbat kirolekin. Gogoratu iazkoan Elgetako haurrak nagusi izan zirela kirol gehienetan. Aurtun Elgetako haur guztxi izen-emate orria eman da gero, momentuz, bi talde osatu dira. Talde bat LHko 3-4.mailakoak osatutakoa da eta bestea alebinek osatutakoa, hau da, LH 5-6.mailakoek. Talde bakoitzean 9 haur daude. Gero eta zailagoa gertatzen zaie antolatzaileei

taldeak osatzea, izan ere, ez daukate haur kopuru nahikoa, honela ba, aurrebenjaminetan (LH 1.go mailakoak), 5 haurrek eman dute izena eta honek ez du ematen talde bat osatzeko beste. Berdina gertatzen da neskekin (DBH 1-2 mailakoekin), futbol zazpiko talderik ezin izan dute osatu oraindik. Beraz dei egiten diegu hemendik oraindik apuntatu ez diren haurrak baldin badaude antolatzaileengana joateko lehenbailehen. Benjaminak eta alebinak ondorengo kirolekin jardungo dute: futbol 7, eskubaloia,



saskibaloia, atletismoa, xakea, badminton, belar gaineko hockey-a, igeriketa, herri kirolak eta txirrindularitza.

Aurrebenjaminendako berriz, oinarrizko soin hezkuntza zerbi-

tzua eskainiko da iaz bezala. Programa honek eskolako haurren hezkuntza aberastu eta osatzeaz gain, kirola egiten eta jolasten ondo pasatzea du helburu.

Urritik aurrera udal kirol zerbitzuak izena emateko azkenengo egunak

Izena emateko epea amaitu eta gero urrian hasiko zaizkigu urtero antolatzen diren ikastaroak. Horrela, edadetuek gimnasia izango dute matitzen eta eguinetan 16:30etatik 17:30etara. Mantentze gimnasiakoe berriz egun beretan jardungo dute, baina arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara. Aerobikekoei dagozkionez, talde batek astelehen eta eguaztenetan dihardu 19:30etatik 20:30etara. Beste taldea osterata martitzen eta eguinetan 20:00-21:00ko ordutegian. Oraindik inork izena ematea nahi badu, aipaturiko ikastarotetan, Udaletxera joatea besterik ez dauka, eta bertako kirol zerbitzuan izena eman. Kirol zerbitzuak ere yoga ikastaro bat antolatu du, urriaren erdialdera hasiko da eta prezioa 4000 pta. izango da. Izena emateko kirol zerbitzuan urriak 11 baino lehen.

X. Arangurennek amaitu du denboraldia Bergarako San Martin sarian 8. egin zuen

Bergarako lasterketa izan zen aurtengo denboraldian Xabierrek lastertu zuen azkenengoa. Lehendakari txapelketaren barruan dagoen proba honetan gainera denboraldiko posturik onena eskuratu zuen, 8. hain zuzen ere. Lasterketa Angiozarko igoeran erabaki zen, Elgetatik zenbait txirrindulari pasa ziren lasterketa buruan eta beraien artean Xabier. Denboraldi hasieran erorikoa izan eta gero, piskanaka forma hartuz joan da, eta lasterketa mordoan amaitu ahal izan ditu gehienak 50 lehenengotan. Honela ba Elgoibarren 16. amaitu zuen, eta Gatzagan 30,...Goierriko itzulian ere parte hartu zuen, lehengo eta azken etapak egin zituen hobekien. Erdiko etapetan nahiko denbora galdu zuen. Azken sailkapenean 70. amaitu zuen. Itzuli honetan hartutako forma puntuak lagundu dio batez ere azken lasterketetan ongi ibiltzen.

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETATA ETA
FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua z/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

IBAIBA-
RRIAGA
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

E
HARATEGIA

A
S
T
I

San Roke 6
tel: 768168.

Ezer ez da berdin

Urriaren 19tik aurrera Goibekokale astero-astero

Urriaren 19tik aurrera Goibekokale? astero jasoko duzue zuen etxeetan. Elgetako etxe guztietara helduko da barikue-ro. Esan genezake, hortaz, aro berri bat hasten dela egun horretatik aurrera. Izan ere, azken bost urteotan hilero jaso dituzue herriko berriak. Aurrerantzean, ordea, freskoago helduko zaizkizue. Urriaren 19tik aurrera, ezer ez da berdina izango Elgetan.

Aldaketa handia izango da, ez bakarrik maiztasunari dagokionez, baita formatuari, lan egiteko moduari edota lan taldeari dagokionez ere. Esaterako, orain arte Goibekokale Din A4 edo aldizkari

formatuan egin bada ere, aurrerantzean Din A3 edo egunkari formatuan egingo da. Bestalde, Goienkariaren barruan joango da, Bergarako Berrigara eta Antzuolako Kontuolarekin batera. Hortaz, ibar osoko albisteak biltzen dituen eta Debagoieneko herri denetan banatzen den 24 orriko atal komunarekin batera, barruan, Elgeta, Bergara eta Antzuolako berriak jasoko dituzue, beste 24 orrialdeko edizioan. Guztira, 48 orriko egunkari formatuko astekaria jasoko duzue.

Bergarako edizioa

Goienkariak, herrietako hiru edizio ezberdin izango ditu: Arrasatekoa, Bergarako eta Aretxabaletakoa. Lehenengoz, Arrasateko eta Aramaioko berriak jasoko dira eta 24 orrialde izango ditu. Bigarrenean, Bergarako,



Elgetako eta Antzuolakoak; honek ere 24 orrialde izango ditu. Aretxabaleta-ko edizioan, azkenik, Aretxabaleta, Eskoriaitzako eta Leintz Gatzaga-koak jasoko dira, eta 12 orrialde izango ditu. Bergarako edizioan, Elgetako berrientzat bi orrialde izango dira astero. Horiek, Goibekokalaren mantxetapean bilduko dira. Antzuolak, beste bi orrialde izango ditu, Kontuolara jasoko direnak, eta gainerako orrietan Bergarakoak jasoko dira, hauek Berrigararen barruan. Goienkariaren hiru ordezkaritzak, Arrasate-

koa, Bergarako eta Aretxabaleta-koak sarean izango dira, hau da, elkarren artean informazioa elkar trukatzeko aukera izango dute.

Albisteak, iritzia eta zerbitzu-informazioa

Baina, Elgetak sortzen du astekari batentzako adina informazio? Horixe da, hainbati entzun izan diogun galdera. Baietz esango genuke. Kontuan izan behar da, astero sortzen diren albisteez gain, agenda, zerbitzu-informazioa, elgetarren iritzia, elkarriketak, gai



Berezitasuna.
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua
Igeltzeritza lanak

Teilatuak Sukaldeak
Etxaurreak Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

historikoak edo atemporagoak direnak, erretratu zaharrak, kanpoan bizi diren elgetarren gainekoa... hau da, era askotako berriak jasoko direla. Sail batzuk asterokoak izango dira: albistea sortu eta berehala kontatuko dizuegu, edo ohar eta deien berri puntuala izango duzue. Baina, beste sail batzuk ez dute asteroko maiztasuna izango. Horrela, bada, astero informazio puntuala jasotzeaz gain, entretenitzeko edo hausnarketarako aukera ere izango duzue.

Lan talde profesionala

Bergara, Elgeta eta Antzuolako berriak jasoko dituen edizioa Bergaran egingo da, gaur egun Berrigara egiten den erredakzioan. Edu Mendibil izango da ordezkariaren arduraduna eta berekin batera lan talde profesionala ariko da. Goibekokalaren atalaz Oxel

Erostarbe arduratuko da. Bera izango da, beraz, Elgetako berriemalea. Mezuak, oharrak, deiak, albisteen berri eta abar bidali nahi izanez gero, berarengana joan zaitezke. Oxel Erostarbek Bergaran egingo du lan, baina Elgetan ere b a t u k o d i t u e a k . Harremanetarako, h o n a k o hauek dira telefonoak: 943 78 90 85 eta 943 76 03 97.

Helbide elektronikoaberri: goibekokale@goiena.com. Goibekokaleko buzoia ere badakizue non dagoen.

Bestalde, Goienkariaren hiru ordezkariak, hau da, Arrasatekoa, Bergarako eta Aretxabaletokea sarean izango dira, hau da, elkarren artean informazioa elkar trukatzeko aukera izango dute.

Herri prentsan eredu

Gaur egun, herri aldizkari gehien dituen eskualdea da Debagoiena: zazpi, hain zuzen ere: Arrasate Press, Berrigara, Aretxagazeta, Kontuola (Antzuola), Kontzejupe-


tik (Oñati), Ze barri? (Eskoriatza eta Leintz Gatzaga) eta Goibekokale (Elgeta). Herrietakoez gain, bailara osoan banatzen den astekaria ere bada: Goienkaria, euskaraz idatzitako komunikabide batek inoiz izan duen zabalkunderik handiena duena (20.000 ale). Oñatiko Kontzejupeetik izan ezik, gainerako guztiak Goienak kudeatzen ditu.

Beste arlo batzuetan bezala, herri prentsan ere aitzindari izan da eskualde hau. 1988an Arrasate Press sortu zen, eta azken hamarkadan hainbeste ugaldu diren tokian tokiko aldizkariendako eredu izan da. Euskara elkarte eta herri administrazioen lankidetzari esker, gure bailaran beste inon baino herri aldizkari gehiago ditugu. Denak euskaraz idatziak.

Baina, herri guztietan ez dute maiztasun berarekin jasotzen herrietako berriak. Goienkaria da astero herri guztietan banatzen den aldizkari bakarra. Arrasaten eta Bergaran ere astero jasotzen dituzte euren herrietako berriak. Beste herrietan, hamabostero edo hilero. Hortaz, aldizkari guztiak asteroko martxan jartzea da Goienak, prentsa arloari dagokionez, duen lehenengo helburua. Urriaren 19tik aurrera izango da hori.



HAIZEA TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.
Tel: 768256




Jesús Mari Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK
Artekale 3.

Mo: 656783299 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN

Errelebuaren ordua

Errelebuaren ordua heldu da eta hemendik aurrera, elgetarrok izango dogu gure ordezkaria Goienkarixan. Oxel Erostarbek beteko dittu kazetari lanak eta berarekin jarri biharko da kontaktuan edozertarako dala be. 943.78.90.85 telefonuan edo goibekokale@goiena.com helbidian. Oxel arduratuko da astero-astero barri fresko-freskuak ekartziaz. Zorte on lantaldian izenian!



Hau ez da despedidia

Batek daki zenbat ordu pasau doguzen ordenaigailu aurrian, kalian, publizidadia lortzen, administraziñuan, kamisetak saltzen, txoznan, argazkixak egitten, norberan iritzixa emoten... Batzutan bestietan baiño hobeto eta baita txarto baiño

txarrau be. *Goibekokalero* guztiei eskerririk asko!

6 urtien buruan danetik izan dogu, baiña egixa esan, uste dot lanian jardun dogun danontzako heziketa leku izan dala aldizkarixa. Hoixe da, gaiñera, ikastiaz gain aldarrikatu bihar dodana honekin artikuluneekin.


Konfundiduta dago kulturua espektakuluak ikustetik datorrela pentsatzen dabena. Jardun egin bihar da zeozertan, geldirik ez egon.

Aldizkarixai etorri jako momentua profesionaltzeko eta salto garrantzitsua emoteko beti be hoibera, aurrera bai maiztasun aldetik, bai itxura aldetik, bai freskotasun aldetik...

Goibekokaleri jarraipena eta osasuna ziurtatu ostian, beste erronka bat geratzen jaku eskuartian. Goibekokalek egindako bidetik badaukagu elkarte kultural bat izenetik izanera pasau bihar dabena, ixilik jardutetik bistan egotera pasau bihar dana. GOIBEKO kultura elkartiari plazaratzeko egunak heldu jakoz. Ointxe da momentua jarduteko eta Espaloia kafe-antzokixa moduko proiektuak aurrera eruateko. Seguru gare jende askok eta askok bultza egitten doskula, elkartekidiak be iaz baiño gehixau...

Seguru oindiokan be ez dagola agurtzeko arrazoiririk, oin lanian hasteko millaka arrazoi dare eta atiak zabalik. Hau despedidia baiño, lanerako gonbitia da bai Goienkarixakin kolaboratzen edota Espaloia proiektuan.

Iban Arantzabal Arrieta



Iraun eta bizi

Atzokuan be, Bittor eta Iban laga nittuan Goibekokaleko buleguan. Betiko moduan, beste danok berandu egindako testu eta atal danetan zeren hutsegiatik konpondu nahixan. Goibekokaleko 71 aliak aurrera atartzian lora danak merezi dittue.

Ingurukuei lora danak botata eta honek guztiz sinistu aurretik, etorkizunian sakondu daigun. Sei urtian, ahal baiño, nahi izan dogun lana egin izan dogu sarritan. Nahi izan dogun horrek, beste batzuk guk nahi ez ginuan lanak egin biharra ekarri dau. Eta nahi ala nahi ez, aldizkarixa betetzian pentsau izan dogu sarritan.

Hilebetekarixan profesionalizatzia eta aldatia izango dira bidia, izandako hutsuniak betetzeko eta hori argi izan dogu Goibekokaleko Erredakzio Kontseiluan. Erromantiko samarra izanda, melankolia apur bat emon izan dosta gure aldizkaritxua proiektu haundi honetan galduko ete zan pentsatziak. Baina, behera eta gora artian, gorantz jua bihar da beti. Eta gora egingo dau Goibekokale Goienkarixan sartuta. Gora, irautian baino, bizitzian pentsauko dau eta.

Lantaldekuok eta herritarrok, ate danak zabalik eukiko dittugu Goibekokale barrixan parte hartzeko. Helburuen alde egin bihar dogu, euskeria eta kulturua zabaltzeko bidiak eraikiz. Goibekokalek emon bihar daban pauso garrantzitsuan gaiñian idatzi dot gaurkuan, eta ia, bebingoz GOITB herrixan ikusten dala eta Espaloia Kultura gunia aurrera doiala idazten doten. Ia honek, gu danon erromantikotasuna amaittu aurretik betetzen diran.

Herrixa ez dago honek aukerok galtzeko, aukerei ospa egitten lagatzen dotsenak izango dira erantzule, aukerarik ez dagonian.

Oxel Erostarbe Tubilla

EROSLE

M. Asun Agirre
Salbador 26. Tel: 768190

VIVO
Janari
denda
Tel: 76 81 31
M^a Jesus
Arrazola

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243
TAPEM, S.A.
Trokela eta estanzioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

GOIBEKOKALEN lanean jardun duten lankideek nola ikusten dute Goibekokale berritua?

GOIBEKOKALEK erreleboa GOIENKARIAari uztera doan honetan, aurreragoko aleetan gurekin batera lanean jardun duten guztiengana jo dugu etorkizunera begira egindako apustu honen gainean zein iritzi duten jakiteko. Guztiengana iristea zaila izan denez, batzuen iritzia jaso dugu.

Proiektuaren hasieratik batzuk eta besteak elkarrekin lan egin dugu eta arrazoi desberdinengatik utzi beharra izan dute, hala nola, Ana Gillegi, Aitor Ubera, Iker Irazabal, Eider Saratsua, Eider Etxaniz, Onditz Villa, Izaro Arrazola, Jone Oianguren, Miren Atxotegi, Amaia Askasibar...

Anak, proiektua garrantzitsua dela dio: herriko jendeak aldizkaria oso estimatuta du eta Goienkarian albiste gutxi ateratzen dira. Hala ere, Goienkarian bertan aste-oro-astero bi orri agertuko dira, freskoago, gertutasunari eutsiz eta Goibekokale aldizkariaren funtzio berbera eginez.


Izarok proiektua ona dela esaten du nahiz eta aurrera begira desberdina izango dela esan.

Mirenek, pena hartu du, baina egunkari batean bilakatzea aurrera jotea dela dio; proiektua euskarari bultzada emateko denez, oso aproposa izango dela ziur dago.

Onditzek berriz, malenkonia apur batekin ikusten du, baina Goienkaria irakurtzera ere ohituko dela esan digu.

Eider Etxanizek, proiektua ona dela dio eta inguruko gauzak ere agertuko dira, ez da berdina izango, baina bai ona.

Eider Sarasuak ez du jarraitu bilakatzeko prozesua eta ez daki praktikan proiektua nolako izango den Goibekokale gertuago sentitzen du, baina segituan ohituko da Goienkariara, are gehiago astekaria izanik.



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009

SISTECO

erraminta makina

Juan Luis Berechinaga
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

**Hozkailuak eta
izozkailuak
aire giro-
tua.**



Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46

Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

TABERNA
ELGETA
tel: 768273

**M^a
ESTHER**
Tel: 76 81 67



zarraparrera

diruduna



Zerga kobratzailiak



intelektuala



marrazkilarixa



kazetarixa



musika kritikua



prentsa arroxa



liderra



zaratas



biajantia

Goibekokaleko lantaldian zein da zein?

Sei urte honetan, lagun askok hartu dogu parte Goibekokale aurrera ataratzeko lanian. Danok be, nahiko ume sartu ginan hemen proiektuan eta aldizkarixa moduan gazte urten bihar dogu. Goibekokale heldutasunerantz doa Goienkarian bidetik eta bertan izango dogu tartetxua hemendik aurrera. Hilebetekari moduan etarako dogun azken

aliam, azkenengo lantaldeko partaidion argazkixa ikusi zeinkie. Umetako argazkixa, ibiltzen ikasten genbiltzenekua, halan hasi zeban Goibekokalek bere bidia, poliki poliki pauso txikixak emoten. Goibekokalek hurrengo emon bihar daban pausua haundixa da, hilebetekari izatetik astekari izaterakua izan bihar da-eta. Goibekokale astekarixan argazki zaharrak bere tartia izango dau eta derrigorrezkua izango da, atal hau aurrera eruateko zuen laguntzia. Eskerrik asko urte honetan argazki zaharra laga dozkuzuen danoi eta laster arte.



ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

Maderas Gallastegi	Banco Santander	Maderas Gallastegi	Banco Santander
Kutxa	Aldi	Kutxa	Aldi
Estampaciones Intxorta	Leniz auto eskola	Estampaciones Intxorta	Leniz auto eskola
Aldi	Lilura edertze institutua	Aldi	Lilura edertze institutua
Sisteco	Bastida	Sisteco	Bastida
Bolinaga Metalak	Gipuzcoana garraioak	Bolinaga Metalak	Gipuzcoana garraioak
Ostatu Jatetxea	Maite Cebrian	Ostatu Jatetxea	Maite Cebrian
Kontxi Arrandegia	Maderas Gallastegi	Kontxi Arrandegia	Maderas Gallastegi
Aperribay S.L.	Kutxa	Aperribay S.L.	Kutxa
Lan Hotz	Estampaciones Intxorta	Lan Hotz	Estampaciones Intxorta
Patxi Taberna	Aldi	Patxi Taberna	Aldi
Aintzane denda	Sisteco	Aintzane denda	Sisteco
Irama	Bolinaga Metalak	Irama	Bolinaga Metalak
Elgetako Udaletxea	Ostatu Jatetxea	Elgetako Udaletxea	Ostatu Jatetxea
Ana liburudenda	Kontxi Arrandegia	Ana liburudenda	Kontxi Arrandegia
F.O.R.	Aperribay S.L.	F.O.R.	Aperribay S.L.
Taberna Zaharra	Lan Hotz	Taberna Zaharra	Lan Hotz
Ortzi Jatetxea	Patxi Taberna	Ortzi Jatetxea	Patxi Taberna
Mendiola autoak	Aintzane denda	Mendiola autoak	Aintzane denda
Baque kafeak	Irama	Baque kafeak	Irama
Elcoro lantegia	Elgetako Udaletxea	Elcoro lantegia	Elgetako Udaletxea
Ibaibarriaga	Ana liburudenda	Ibaibarriaga	Ana liburudenda
Errasti Harategia	F.O.R.	Errasti Harategia	F.O.R.
Zabala Hermanos	Taberna Zaharra	Zabala Hermanos	Taberna Zaharra
Bolatoki jatetxea	Ortzi Jatetxea	Bolatoki jatetxea	Ortzi Jatetxea
Elgetako EH	Mendiola autoak	Elgetako EH	Mendiola autoak
Elgetako EAJ-PNV	Baque kafeak	Elgetako EAJ-PNV	Baque kafeak
Goio Sarasua igeltseritza	Elcoro lantegia	Goio Sarasua igeltseritza	Elcoro lantegia
Haizea taberna	Ibaibarriaga	Haizea taberna	Ibaibarriaga
Eusko Jaurlaritza	Errasti Harategia	Eusko Jaurlaritza	Errasti Harategia
Gipuzkoako Foru Aldundia	Zabala Hermanos	Gipuzkoako Foru Aldundia	Zabala Hermanos
Montiel iturgintza	Bolatoki jatetxea	Montiel iturgintza	Bolatoki jatetxea
Erosle	Elgetako EH	Erosle	Elgetako EH
Biltegi denda	Elgetako EAJ-PNV	Biltegi denda	Elgetako EAJ-PNV
Olabarria autobusak	Goio Sarasua igeltseritza	Olabarria autobusak	Goio Sarasua igeltseritza
Etxebarria lantegiak	Haizea taberna	Etxebarria lantegiak	Haizea taberna
Vivo	Eusko Jaurlaritza	Vivo	Eusko Jaurlaritza
Tapem	Gipuzkoako Foru Aldundia	Tapem	Gipuzkoako Foru Aldundia
Gorrotxategi harategia	Montiel iturgintza	Gorrotxategi harategia	Montiel iturgintza
Elena botika	Erosle	Elena botika	Erosle
Elgeta autoak	Biltegi denda	Elgeta autoak	Biltegi denda
Jakina sukaldeak	Olabarria autobusak	Jakina sukaldeak	Olabarria autobusak
Maria Ester ileapaindegia	Etxebarria lantegiak	Maria Ester ileapaindegia	Etxebarria lantegiak
Mari Karmen lentzeria	Vivo	Mari Karmen lentzeria	Vivo
Ibaibarriaga garraioak	Tapem	Ibaibarriaga garraioak	Tapem
Urdondo elektrizitatea	Gorrotxategi harategia	Urdondo elektrizitatea	Gorrotxategi harategia
Elgeta hotela	Elena botika	Elgeta hotela	Elena botika
Kontxi arrandegia	Elgeta autoak	Kontxi arrandegia	Elgeta autoak
Iapam	Jakina sukaldeak	Iapam	Jakina sukaldeak
Egaña gas industrialak	Maria Ester	Egaña gas industrialak	Maria Ester
Debagoieneko manko	Mari Karmen	Debagoieneko manko	Mari Karmen
Agirrezabal testilak	Ibaibarriaga garraioak	Agirrezabal testilak	Ibaibarriaga garraioak
Guria jatetxea	Urdondo elektrizitatea	Guria jatetxea	Urdondo elektrizitatea
Elorrioko AEK	Elgeta hotela	Elorrioko AEK	Elgeta hotela
Gorrotxategi harategia		Gorrotxategi harategia	

ESKERRIK ASKO